

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure zerbitzua gehien bat pertsona gazteek erabiliko dute, teknologia berriarekin harremanetan egon izan direnak lehenagotik. Izan ere, pertsona mota batzuk baliteke ez gure zerbitzua erabiltzera animatzea, adibidez, adin nagusiko pertsona batzuk, edo ezer baino gehiago kontzertua zuzenean soilik ikusi nahi dutenak. Bestalde, baliteke ere oso adin txikiko umeak ez izatea gai gure zerbitzua erabiltzeko. Beraz, gure zerbitzua erabiliko duten pertsonak, ezaugarri hauek edukitzerako joera izango dute: ausartak izango dira, esperientzia berriak bizitzeko baikorrak; urte eremua, eremu bat jartzearren, 7 urtetik aurrerako jendearentzat izango litzake, 80 urte arte gutxi gora behera. Noski, zenbaki hauek geure aholkuak besterik ez dira, baina mundu guztia dago gure zerbitzua probatzera gonbidatuta. Gainera, gure bezeroak, musikazaleak izango dira, logikoa den bezala, gure zerbitzua musikazale eta kontzertuzaleentzat baita.

Bestalde, logikoa den bezala, gure bezeroak asko baldintzatuko dituen kontzertu mota eta abeslariak dira; baliteke pertsona bat nahiz eta oso heldua izan, kontzertua oso gustokoa badu, gure zerbitzua erabiltzera animatzea; aldi berean, ume txikientzako ekitaldi edo kontzertua bada, baliteke gurasoek bere seme-alabei kontzertua gure zerbitzuaren bitartez ikusteko aukera ematea.

Beraz, segmentazio ereduaren arabera, segmentazio konkretu bati zuzenduta dago, nahiz eta pertsona guztiek zerbitzua erabiltzeko aukera izan, jende gazteak gehiago erabiltzea espero delako, beste batzuentzat ez delako hain aproposa.

